

• Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?

Lehen aipatu bezala, gure produktua desberdintzeko QR kode bati esker argazkiak gure webgunera igotzeko aukera izango dute erabiltzaileek. Honekin, interneten eta sare sozialekin gure produktua ezagutzera eramango genuke publizitate bidez, horrela bezero berriak erakarriko genituzke. Gure bezeroak mantentzeko, sare sozialetan berrikuntzak egingo genituzke.

Adibidez, Zumaiako Flyshean gure euskarri bat jarriz gero, jendeak piskanaka bere argazkiak gure sare sozialetan partekatuz, turista edo bidaiari gehiago gerturatuko lirateke Zumaiara. Tursita igoera honek herriko ekonomia ere igoko lukelako udaletxeak euskarri gehiago jarriko lituzke

Sare sozialaren ideiarekin, euskaldunen komunitate bat sortzea lortuko genuke, Euskal Herriaren paisai berria ezagutzera emanaz eta gure euskal kultura sustatuz. Herri txikiak ere ezagutzera emateko proiektu egokia da, baita Euskal Herrian betidanik famatuak izan direnei berrikuntza emateko egokia.